EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
Aniztasuna, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasun Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO
Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional

**2026KO EKAINAREN 12 (E) KO, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUAREN AGINDUA, TRANSEN DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA AGINTZEN DUENA.**

XIII. legegintzaldia hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua indarrean sartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen egitura berrantolatu berri da.

Urriaren 29ko 320/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasun Zuzendaritza arduratzen da transen administrazio-dokumentazioari buruzko dekretu-proiektuaren prestaketa bultzatzeaz eta koordinatzeaz.

Prozedura horrek bat etorri beharko du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean (aurrerantzean, 6/2022 Legea) ezarritakoarekin, eta beharrezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak bete beharko ditu.

Lege horren 12.1 artikuluak ezartzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Kasu honetan, aipatutako prozedura hasteko agindua emateko eskumena Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuarena izango da.

Horregatik guztiagatik, eta 6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren arabera prozedura hasteko Aginduak izan behar duen edukietan oinarrituta, honako hau,

**EBATZI DUT**

**LEHENENGOA. - Agindu honen xedea eta prozedura hasteko agindua emateko eskumena.**

**ORDEN DE 12 DE JUNIO DE 2026, DE LA CONSEJERA DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO, POR LA QUE SE ORDENA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO SOBRE LA DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA DE LAS PERSONAS TRANS.**

Tras el comienzo de la XIII legislatura, y la entrada en vigor del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se procedió a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma.

El Decreto 320/2024, de 29 de octubre, establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, y es la Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional la encargada de impulsar y coordinar la elaboración del Proyecto de decreto sobre la documentación administrativa de las personas trans.

Dicho procedimiento habrá de ajustarse a lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general (en adelante, Ley 6/2022), y cumplir los trámites e informes considerados necesarios.

El artículo 12.1 de la mencionada ley establece que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. En este caso, la competencia para ordenar el inicio del referido procedimiento viene atribuida a la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

Por todo ello, y sobre la base del contenido necesario que debe tener la Orden de Iniciación, conforme al artículo 13.1 de la Ley 6/2022,

**RESUELVO**

**PRIMERO. - Objeto de la presente Orden y competencia para ordenar la iniciación del procedimiento.**

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Agindu honen xedea da transen dokumentazio administratiboari buruzko Dekretua egiteko prozedurari hasiera ematea.

Prozedura hau hasteko agindua emateko eskumena Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuari dagokio, 6/2022 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA. - Egin beharreko arauaren xedea eta helburua.**

Egin nahi den dekretu-proiektuaren helburua da transek erregistro-zuzenketa Erregistro Zibilean lortu arte eduki ahal izango duten dokumentazio administratiboa arautzea.

**HIRUGARRENA. - Egiten den arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 9.2 artikuluko d) letran ezartzen du euskal botere publikoek konpromisoa hartu behar dutela pertsonen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen behar diren baldintzak sustatzeko, hori eragozten duten oztopoak kenduz.

Esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenak ditu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzera bideratutako politika publikoak garatzeko, bai eta antolaketaren, funtzionamenduaren eta administrazio-prozeduraren arloan ere.

Halaber, otsailaren 15eko 4/2024 Legeak, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, Euskadiko trans pertsonen eskubideak babesteko esparru juridikoa ezartzen du. Zehazki, 9. artikuluak erregelamendu bidez garatzea aurreikusten du, pertsona horiek administrazio-dokumentazio egokia eduki ahal izan dezaten, estatuko administrazioaren mendeko dokumentazioa aldatzen ez den bitartean, diskriminazio-egoerak saihesteko.

Alde horretatik, lege-agindu hori betetzeko arau-tresna egokia da dekretu-proiektu hau, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan benetan aplikatuko dela bermatzen du. Ikuspegi materialetik, arauak administrazio-praktikan detektatutako behar bati erantzuten

El objeto de la presente Orden es el inicio del procedimiento para la elaboración del Decreto sobre la documentación administrativa de las personas trans.

La competencia para ordenar la iniciación de este procedimiento viene atribuida a la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, en virtud de lo establecido en el artículo 12.1 de la Ley 6/2022.

**SEGUNDO. - Objeto y finalidad de la norma a elaborar**.

El proyecto de Decreto que se pretende elaborar tiene por objeto regular la documentación administrativa de la que podrán disponer las personas trans mientras no hayan obtenido la rectificación registral en el correspondiente Registro Civil.

**TERCERO. - Viabilidad jurídica y material de la norma que se elabora.**

El Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su artículo 9.2 apartado d), establece el compromiso de los poderes públicos vascos de promover las condiciones necesarias para que la libertad y la igualdad de las personas sean reales y efectivas, removiendo los obstáculos que lo impidan.

En este marco, la Comunidad Autónoma de Euskadi ostenta competencias para el desarrollo de políticas públicas orientadas a garantizar la igualdad y la no discriminación, así como en materia de organización, funcionamiento y procedimiento administrativo.

Asimismo, la Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans establece el marco jurídico de protección de los derechos de las personas trans en Euskadi. En particular, su artículo 9 prevé el desarrollo reglamentario de la posibilidad de que estas personas cuenten con documentación administrativa adecuada mientras no se modifique la documentación dependiente de la administración estatal, con el fin de evitar situaciones de discriminación.

En este sentido, el presente proyecto de Decreto constituye el instrumento normativo idóneo para dar cumplimiento a dicho mandato legal, garantizando su aplicación efectiva en el ámbito de la Administración de la Comunidad

dio, segurtasun juridikoa ematen du eta jarduteko irizpide homogeneoak ezartzen ditu.

Azken batean, dekretu-proiektuak arau-erantzun egokia eta proportzionatua ematen du, ordenamendu juridikoaren printzipioekin koherentea eta administrazio-dokumentazioaren esparruan trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra bermatzera bideratua.

**LAUGARRENA. - Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.**

Dekretu hau onartzeak pertsona transen dokumentazio administratiboari buruzko abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua indargabetzea dakar.

**BOSGARRENA. - Generoaren araberako eragina.**

Generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazioari dagokionez, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 20.1 artikuluan ezartzen du euskal administrazio publikoek betebeharra dutela arauek emakumeen eta gizonen egoeran izan dezaketen eragina aztertzeko, eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko izan ditzaketen ondorioak baloratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluan zehaztutakoarekin koherente izanik –berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzeko betebeharra ezartzen die botere publikoei–, eta hori eragozten duten oztopoak kentzeko, arau-proiektu honek genero-ikuspegia txertatzen du diseinuan eta garapenean.

Era berean, otsailaren 15eko 4/2024 Legeak, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, indartu egiten du botere publikoek tratu-berdintasuna bermatzeko eta genero-identitateagatik diskriminaziorik ez jasateko duten betebeharra, eta espresuki aurreikusten du trans pertsonen administrazio-dokumentazioari buruzko neurrien erregelamendu bidezko garapena.

Autónoma de Euskadi. Desde el punto de vista material, la norma responde a una necesidad detectada en la práctica administrativa, aportando seguridad jurídica y estableciendo criterios homogéneos de actuación.

En definitiva, el proyecto de Decreto ofrece una respuesta normativa adecuada y proporcionada, coherente con los principios del ordenamiento jurídico y orientada a garantizar la igualdad real y efectiva de las personas trans en el ámbito de la documentación administrativa.

**CUARTO. - Repercusión en el ordenamiento jurídico.**

La aprobación de este Decreto implica la derogación del Decreto 234/2015, de 22 de diciembre, sobre la documentación administrativa de las personas trans.

**QUINTO. – Impacto en función del género.**

En lo referente a la evaluación de impacto en función del género, el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, establece en su artículo 20.1 la obligación de las administraciones públicas vascas de analizar el impacto potencial de las normas en la situación de mujeres y hombres, valorando sus posibles efectos en la eliminación de desigualdades y en la promoción de la igualdad.

En coherencia con lo señalado en el artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que impone a los poderes públicos el deber de promover las condiciones para que la igualdad sea real y efectiva, así como de remover los obstáculos que lo impidan, el presente proyecto normativo incorpora la perspectiva de género en su diseño y desarrollo.

Asimismo, la Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans refuerza el deber de los poderes públicos de garantizar la igualdad de trato y la no discriminación por razón de identidad de género, previendo expresamente el desarrollo reglamentario de medidas relativas a la documentación administrativa de las personas trans.

Esparru horretan, dekretu-proiektuak garrantzi berezia hartzen du genero-ikuspegitik, pertsonen genero-identitatera egokitutako administrazio-dokumentazioa izateko aukera arautzen baitu, Estatuko dokumentazioa aldatzen ez den bitartean. Dokumentuekin bat ez datorren egoera hori eguneroko bizitzan desberdintasuna eta diskriminazioa sortzen duten faktore nagusietako bat da, eta eragina du zerbitzu publikoetarako sarbidean, Administrazioarekiko harremanetan eta berdintasunezko eskubideetan.

Ikuspegi horretatik, proiektatutako arauak eragin positiboa du, pertsonen genero-identitatearekin bat datorren administrazio-tratua bermatzen baitu, eta desadostasun dokumentaletik eratorritako diskriminazio-egoerak ezabatzen laguntzen baitu. Bereziki, kontuan hartu behar da trans pertsonak kalteberatasun bereziko egoeran egon daitezkeela, sexuan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazio-faktoreak batera gertatzearen ondorioz. Era berean, proposatutako erregulazioak aukera ematen du administrazio-jarduerari segurtasun juridikoa eta homogeneotasuna emateko, tratu- eta aukera-berdintasuna indartuz eskubideak eskuratzeko eta baliatzeko orduan, eta berdintasun erreal eta eraginkorraren helburuari lagunduz.

Azkenik, araua prestatzean eta aplikatzean, genero-ikuspegia zeharka txertatzen dela zainduko da, generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko gidalerroekin bat etorriz, hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuz eta ikuspegi inklusiboa, intersekzionala eta aniztasunarekiko errespetuzkoa sustatuz.

**SEIGARRENA. - Ekonomia- eta aurrekontu- eragina.**

6/2022 Legearen 13.1.d) artikuluak eskatzen du prozedura hasteko Aginduak hurbilketa bat jaso dezala ukitutako administrazio publikoen aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruz, dagokion gaian eta, hala badagokio, dagokion jarduera-sektorean izan dezakeen eraginari buruz, bai eta proposamenak herritarrentzat ekar ditzakeen onurei eta administrazio-kargei buruz ere, bereziki enpresa txiki eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruz.

En este marco, el proyecto de Decreto adquiere una especial relevancia desde la perspectiva de género, en la medida en que regula la posibilidad de disponer de documentación administrativa adecuada a la identidad de género de las personas mientras no se produzca la modificación de la documentación de carácter estatal. Esta situación de discordancia documental constituye uno de los principales factores generadores de desigualdad y discriminación en la vida cotidiana, afectando al acceso a servicios públicos, a las relaciones con la Administración y al ejercicio de derechos en condiciones de igualdad.

Desde esta perspectiva, la norma proyectada presenta un impacto positivo, al garantizar un trato administrativo acorde con la identidad de género de las personas y contribuir a la eliminación de situaciones de discriminación derivadas de la discordancia documental. En particular, debe tenerse en cuenta que las personas trans pueden encontrarse en situaciones de especial vulnerabilidad como consecuencia de la concurrencia de factores de discriminación por razón de sexo e identidad de género. Asimismo, la regulación propuesta permite dotar de seguridad jurídica y homogeneidad a la actuación administrativa, reforzando la igualdad de trato y de oportunidades en el acceso y ejercicio de derechos y contribuyendo al objetivo de igualdad real y efectiva.

Finalmente, en la elaboración y aplicación de la norma se velará por la incorporación transversal de la perspectiva de género, de conformidad con las Directrices para la evaluación previa del impacto en función del género, garantizando el uso no sexista del lenguaje y promoviendo un enfoque inclusivo, interseccional y respetuoso con la diversidad.

**SEXTO. - Impacto económico y presupuestario.**

El artículo 13.1.d) de la Ley 6/2022 requiere que la Orden de inicio contenga una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate, así como sobre los beneficios y las cargas administrativas que pueda conllevar la propuesta para la ciudadanía, con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.

Egingo den Dekretu-proiektuaren helburua transen dokumentazio administratiboa arautuko duen Dekretua egitea denez, nahikoa izango da espedienteari proiektuari buruzko memoria ekonomiko bat eranstea, bertan proposamenaren ondorio ekonomikoak aztertuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren 6/2022 Legearen 13.1.d) artikuluak eskatzen du prozedura hasteko aginduak hurbilketa bat jaso dezala ukitutako administrazio publikoen aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruz, dagokion gaian eta, hala badagokio, dagokion jarduera-sektorean izan dezakeen eraginari buruz, bai eta proposamenak herritarrentzat ekar ditzakeen onurei eta administrazio-kargei buruz ere, bereziki enpresa txiki eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruz.

**ZAZPIGARRENA. - Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Espedientearen izapidetzea "Tramitagune" izapidetze elektronikoko aplikazio informatikoaren bidez egingo da, Izaera Orokorreko Xedapen Arauemaileak egiteko prozedura Izapidetzeko Oinarrizko Eredua onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiarekin bat etorriz.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko Aginduak adierazi behar ditu gaia eta proposatutako erregulazioaren edukia dela-eta egoki iritzitako izapide eta txostenak.

1.- Dekretu-proiektua idazteko, hasteko agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta lortu nahi diren helburuetara eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzetara hobekien egokitzen diren aukerak hartuko dira kontuan.

Era berean, 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, testua bi hizkuntzetan idatziko da, eta bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuko da hizkuntza-bertsioak egitean araua idazteko prozesu osoan. Testua bi hizkuntzetan idatziko da, aldez aurretik onartu eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik. Gainera, hizkuntzaren erabilera ez sexista eta inklusiboa eginez idatziko dute testua.

Dado que el proyecto de Decreto que se va a elaborar tiene por objeto elaborar un Decreto que regule la documentación administrativa de las personas trans, bastará con incorporar al expediente una memoria económica relativa al proyecto en la que se analicen las consecuencias económicas de la propuesta, el artículo 13.1.d) de la Ley 6/2022 de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi exige que la orden de inicio del procedimiento contenga una aproximación de la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia de que se trate y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate, así como de los beneficios y cargas administrativas que la propuesta pueda suponer para la ciudadanía, en especial para las pequeñas y medianas empresas.

**SÉPTIMO. - Trámites e informes procedentes.**

La tramitación del expediente se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica "Tramitagune", de conformidad con el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 de la Ley 6/2022, la Orden de inicio debe señalar los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

1.- En cuanto a la redacción del proyecto de Decreto, ésta se efectuará atendiendo al contenido de esta Orden de inicio, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

Asimismo, conforme al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado será redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto se redactará de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. Además, el texto será redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.

2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan (aurrerantzean, APEL) eta 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsultaren izapideari dagokionez, adierazi behar da transexualen dokumentazio administratiboari buruzko dekretu-proiektu hau egiteko beharrezkoa dela parte-hartze publikorako mekanismoak bermatzea; izan ere, 6/2022 Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurretiazko kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira xedapenak zuzenean eragiten badie herritarren eskubide eta interes legitimoei, eta hori gertatzen da kasu honetan.

2.- Por lo que respecta al trámite de consulta previa previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante, LPAC), así como en el artículo 11 de la Ley 6/2022, debe señalarse que, en la elaboración del presente proyecto de Decreto relativo a la documentación administrativa de las personas transexuales, resulta necesario garantizar mecanismos de participación pública, puesto que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1 de la Ley 6/2022, deben realizarse los trámites de consulta previa, audiencia e información pública cuando la disposición afecte de manera directa a los derechos e intereses legítimos de la ciudadanía, circunstancia que concurre en el presente supuesto.

3.- Agindu honen bosgarren atalean azaldutakoaren arabera, generoaren araberako eragina ebaluatzeko txosten bat erantsiko da.

3.- En virtud de lo expuesto en el apartado quinto de la presente Orden se incluirá un informe de evaluación de impacto en función del género.

4.- 6/2022 Legearen 13.2 artikuluarekin bat etorriz, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

4.- De acuerdo con el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, la presente Orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en Legegunea. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

5.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egin beharko da, nahitaez. Memoria horretan, prozedura hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko da, eta, nolanahi ere, 6/2022 Legearen 15. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen den edukia.

5.- Se elaborará, con carácter preceptivo, una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la Orden de inicio cualquier extremo que pueda ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, el contenido al que hace referencia el apartado 3 del artículo 15 de la Ley 6/2022.

6.- Espedientean, agindu honetako seigarren atalean aipatzen den memoria ekonomikoa jaso beharko da.

6.- En el expediente deberá constar, la memoria económica referida en el apartado sexto de la presente Orden.

7.- Agiri horiek egin ondoren, dekretu-proiektua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren agindu bidez, aldez aurretik onartu beharko da.

7.- Elaborados los citados documentos, se someterá el proyecto de Decreto a la aprobación previa, mediante Orden de la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

Arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiaren seigarren eta

De conformidad con lo dispuesto en los apartados sexto y séptimo del Acuerdo del Consejo de Gobierno de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el modelo básico para la

zazpigarren ataletan xedatutakoaren arabera, aldez aurreko onarpenaren agindua, arau proiektuarekin batera, iragarki-taula elektronikoan eta Legegunean argitaratuz emango da ezagutzera sustatutako araugintza-ekimena.

tramitación del procedimiento de elaboración de disposiciones normativas de carácter general, la iniciativa normativa promovida se dará a conocer mediante la publicación de la Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, en el tablón electrónico de anuncios y en Legegunea.

Halaber, 6/2022 Legearen 16.3 artikuluaren arabera, aldez aurreko onarpenaren agindua eta arau-proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira. Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, bertan ezarritako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko, Legegunean argitaratuko da. Gainera, espedientea osatuko duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

Asimismo, con lo dispuesto en el artículo 16.3 de la Ley 6/2022, la Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, serán objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En el mismo sentido, y según lo estipulado en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, para dar cumplimiento al mandato de publicidad dispuesto en la misma y hacer público, en euskera y castellano, el texto del proyecto, se publicará en Legegunea. Además, se publicarán las memorias e informes que conformen el expediente.

8.- Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, eta 6/2022 Legearen 16., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, dekretu-proiektuaren edukia, eragindako beste administrazio publiko batzuen parte-hartzea eta kontsulta, bai eta organo espezializatuei edo Administrazio Orokorreko sailei egindako txostenak eta kontsultak ere, aldi berean eta hilabeteko epe komun berean egingo dira, aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

8.- Con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 16, 17 y 18 de la Ley 6/2022, los trámites de audiencia e información pública, que resultan procedentes atendiendo al contenido del proyecto de decreto, la participación y consulta a otras administraciones públicas afectadas, así como los informes y consultas a órganos especializados o a los propios departamentos de la Administración General, se realizarán de modo simultáneo y durante el mismo plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.

Lehenik eta behin, 6/2022 Legearen 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak aipatutako gainerako izapideekin batera egingo dira, hogei egun balioduneko epean, dagokion ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zeinaren arabera alegazioak aurkezteko epea ezin baita izan hogei egunetik beherakoa.

En primer lugar, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, los trámites de audiencia e información pública se efectuarán simultáneamente con los demás trámites señalados y durante un plazo de veinte días hábiles, contado desde la publicación de la correspondiente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo previsto en el artículo 83 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que establece que el plazo para formular alegaciones no podrá ser inferior a veinte días.

Horretarako:

a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da dekretu-proiektua entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen mende jartzeko ebazpena. Ebazpen horrek esteka bat izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta bertan eskuragarri egongo da proiektuaren testua, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten adierazitako epean.

b) Ebazpen bera eta dekretu-proiektuaren esteka Irekian argitaratuko dira.

Bigarrenik, 6/2022 Legearen 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, xedapenaren testua aldez aurretik onartzen dela argitaratzen denetik hilabeteko epe komunaren barruan, parte hartzeko aukera emango zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei.

Azkenik, 6/2022 Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitako Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsulten esparruan, Eusko Jaurlaritzako sail guztiei emango zaie parte hartzeko aukera.

9.- 6/2022 Legearen 16. artikuluaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira (guztiak aldi berean egingo dira), hilabeteko epe komun berean:

a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, genero-garrantzirik ez duela egiaztatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzarako Legearen testu bateginaren 20.6 artikulua aplikatuz.

b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta xedapen horiek hizkuntzaren arloan

A tal efecto:

a) Se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la resolución por la que se somete el proyecto de decreto a los trámites de audiencia e información pública. Dicha resolución contendrá un enlace al tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, donde estará disponible el texto del proyecto para que las personas interesadas puedan formular las alegaciones que estimen pertinentes dentro del plazo señalado.

b) La misma resolución y el enlace al proyecto de decreto se publicarán asimismo en Irekia.

En segundo lugar, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 6/2022, dentro del plazo común de un mes contado desde la publicación de la aprobación previa del texto de la disposición, se dará participación a las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y a los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por último, en el marco de las consultas a los propios departamentos de la Administración General previstas en el artículo 16.2 de la Ley 6/2022, se dará participación a todos los departamentos del Gobierno Vasco.

9.- De conformidad con el artículo 16 de la Ley 6/2022, se solicitarán los siguientes informes de carácter no esencial, realizándose todos ellos de modo simultáneo, y durante el mismo plazo común de un mes:

a) Informe de EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer, de verificación de ausencia de relevancia de género, en aplicación del artículo 20.6 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

b) Informe de la Dirección de normalización lingüística de las Administraciones Públicas, sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la

indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzkoa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2. l) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta euskararen erabilera normalizatzeko prozeduraren 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera ere, xedapen orokorrak sartzeko prozedura ezartzen duena.

normativa vigente en materia lingüística, de acuerdo con lo establecido en el artículo 14.2. l) del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como en virtud de lo determinado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

10.- Ez da beharrezkoa Europar Batasunean inolako izapiderik egitea.

10.- No resulta necesario realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

11.- 6/2022 Legearen 19. artikuluaren arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten hauek eskatu beharko dira:

11.- Conforme al artículo 19 de la Ley 6/2022, deberán requerirse los siguientes informes preceptivos de carácter esencial:

a) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (aurrerantzean, 2/2016 Legea) 90. eta 91. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernuen Batzordeari eskatu beharko zaio udal-eskumenei eragiten dieten arau-xedapen orokorrak egiteko prozeduretan esku har dezala. Txosten hori proposamenaren organo sustatzaileak eskatuko du, eta hamabost eguneko epean eman beharko da, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

a) De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, (en adelante, Ley 2/2016) deberá solicitarse la intervención de la Comisión de Gobiernos Locales en los procedimientos de elaboración de disposiciones normativas de carácter general que afecten a competencias propias municipales. Dicho informe será solicitado por el órgano promotor de la propuesta y deberá emitirse en el plazo de quince días a partir del día siguiente al de la recepción de la solicitud.

Kasu honetan, transen dokumentazio administratiboari buruzko Dekretu-proiektuak, bereziki 8. artikuluan, aurreikusten du dokumentazio hori emateko ebazpena jakinarazi behar zaiela interesdunak erroldatuta dauden udalei, eta euskal administrazio publikoek beharrezko neurriak har ditzatela bermatzeko pertsona horiek, parte hartzen duten prozedura guztietan, libreki zehaztutako genero-identitatearen arabera tratatuko direla.

En el presente caso, el proyecto de Decreto sobre la documentación administrativa de las personas trans prevé, en particular en su artículo 8, la comunicación de la resolución de concesión de dicha documentación a los ayuntamientos en los que las personas interesadas se encuentren empadronadas, así como la obligación de las administraciones públicas vascas de adoptar las medidas necesarias para garantizar que, en todos los procedimientos en los que participen, dichas personas sean tratadas conforme a su identidad de género libremente determinada.

Era berean, Trans pertsonak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legearen 9.1

Asimismo, el artículo 9.1 de la Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los

artikuluak ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte administrazio-dokumentazioa trans pertsonen sexu- eta genero-identitatera egokitzeko. Era berean, aipatutako legearen 2. artikuluak xedatzen duenez, udalek lege hori betetzen dela bermatuko dute, beren eskumenen esparruan.

Ondorioz, aurreikuspen horiek eragina dutenez udalek beren eginkizunetan jardutean eta beren administrazio-jarduerak egokitu beharra dakartenez, proiektatutako arauak udal-eskumenei eragiten die; beraz, dagokion txostena eskatu behar zaio Tokiko Gobernuen Batzordeari.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez.

Txosten hori 15 eguneko epean eman beharko da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, batzorde horren irizpenaren pean jarri beharko dira Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren

derechos de las personas trans, establece que las administraciones públicas vascas deberán adoptar, en el ámbito de sus competencias las medidas necesarias para adecuar la documentación administrativa a la identidad sexual y de género de las personas trans. Del mismo modo, el artículo 2 de la mencionada ley, dispone que los ayuntamientos garantizazarán el cumplimiento de la misma en el ámbito de sus competencias.

En consecuencia, en la medida en que dichas previsiones inciden en la actuación de los ayuntamientos en el ejercicio de sus funciones y comportan la necesidad de adaptar sus actuaciones administrativas, la norma proyectada afecta a competencias municipales, por lo que procede solicitar el correspondiente informe de la Comisión de Gobiernos Locales.

b) Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las previsiones contenidas en el capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El mismo, deberá emitirse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción, en la Oficina de Control Económico, del texto del proyecto de disposición normativa acompañado de la documentación requerida en función de su contenido.

c) De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3.1.c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, deberán someterse a dictamen de dicha Comisión los proyectos de disposiciones

legeak garatzeko edo betearazteko ematen dituen erregelamenduzko xedapenen proiektuak.

Kasu honetan, Dekretu-proiektuaren oinarria 4/2024 otsailaren 15eko pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko legearen 9.artikuluan ezarritakoa da, zeinak erregelamendu bidez garatzea aurreikusten baitu. Zehazki, garapen horrek esan nahi du pertsona horiek administrazio-agiri egokiak izan ditzaketela, Estatuko Administrazioaren mendeko agiriak aldatzen ez diren bitartean, bereizkeria-egoerak saihesteko.

12.- Nahitaezko txosten hauek ez dira beharrezkoak izango:

a) Ez da beharrezkoa Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren txostena, 6/2022 Legearen 20. artikuluan zehazten dena; izan ere, ezartzen da nahitaezkoa izango dela hura arautzen duten xedapen espezifikoek hala adierazten dutenean. Kasu honetan, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3. artikuluak eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluak ezartzen dute organo horiek nahitaezko txostenak egingo dituztela lan-arloko politikarekin eta politika ekonomiko eta sozialarekin lotutako Dekretu-proiektuetan, eta ez da hori kasu honetan gertatzen.

b) Ez da beharrezkoa memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluaren arabera.

13.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, eta aurrekarien eta egindako izapideen berri emango da, 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

reglamentarias que se dicten por el Gobierno Vasco en desarrollo o ejecución de leyes del Parlamento.

En el presente caso, el proyecto de decreto tiene su fundamento en lo previsto en el artículo 9 de la Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans, que prevé su desarrollo reglamentario. En particular, dicho desarrollo se refiere a la posibilidad de que estas personas cuenten con documentación administrativa adecuada mientras no se modifique la documentación dependiente de la Administración del Estado, con el fin de evitar situaciones de discriminación.

12.- No serán necesarios los siguientes informes preceptivos:

a) No resulta necesario el informe del Consejo de Relaciones laborales y del Consejo Económico Social Vasco que se especifica en el artículo 20 de la Ley 6/2022, ya que se establece que será preceptivo cuando así lo indiquen las disposiciones específicas que lo regulan. En este caso, el artículo 3 de la Ley 4/2012, de 23 de febrero, del Consejo de Relaciones Laborales, así como el artículo 3 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco, establecen que dichos órganos emitirán informes preceptivos en los proyectos de decreto relacionados con la política en materia laboral y la política económica y social, no siendo este el caso que nos ocupa.

b) No resulta necesario la elaboración de una memoria económica especifica, en función del artículo 15.5 de la Ley 6/2022.

13.- Una vez finalizada la tramitación del proyecto de norma, y con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento, reseñando los antecedentes y trámites realizados, conforme a lo establecido en el artículo 24.2 de la Ley 6/2022.

14.- Dekretu-proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokienez, 6/2022 Legearen 29. artikuluaren eta Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluaren arabera, erregelamendu-arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

14.- En cuanto a la publicidad y publicación del proyecto de Decreto, conforme al artículo 29 de la Ley 6/2022 y en virtud del artículo 64 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, las normas reglamentarias se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

**ZORTZIGARRENA. - Idazketa-sistema.**

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluaren eta 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, landutako testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatu behar da araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon behar du, instrukzio-fasean aurretiazko onarpena eta ondorengo izapidetzea eman aurretik. 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den idazketa-sistema IZO itzulpen-zerbitzuek testu arau-emailearen gaztelaniazko bertsioa itzultzea izango da.

Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikuluaren arabera, euskarazko proiektuaren testu artikulatuaren bertsioa gaztelaniazkoaren aldean zehatza eta baliokidea dela bermatzeko, eta alderantziz, azkenean onartu behar diren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar diren testuen kasuan, argitaratzeko bidalitako dokumentuak euskarazko bertsioaren zehaztasunaren eta baliokidetasunaren ziurtagiria izan beharko du, eta alderantziz, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emandakoa.

**OCTAVO. - Sistema de redacción.**

Conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. El sistema de redacción que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el citado artículo 8.1 de la Ley 10/1982, será la traducción por los servicios de traducción IZO de la versión en castellano del texto normativo.

Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la Ley 6/2022, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP.

**BEDERATZIGARRENA. - Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa izendatzea.**

Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasun Zuzendaritza arduratuko da prozedura bideratzeaz.

**NOVENO. – La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.**

La Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional será el órgano encargado de la instrucción del procedimiento.

**HAMARGARRENA. - Egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratzea.**

**1) Tramitagune aplikazio elektronikoan zabaltzea.**

Agindu hau helburu horretarako garatutako eta Tramitagune plataforman zabaldutako aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da. Hori guztia Xedapen Orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2025eko

**DECIMO. – Publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica.**

**1) Difusión en aplicación electrónica de Tramitagune.**

La tramitación de la presente Orden se realizará a través de la aplicación informática desarrollada para dicha finalidad y desplegada en la plataforma Tramitagune. Todo ello de conformidad con el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 13 de mayo de 2025, por el que se

maiatzaren 13ko Erabakiarekin bat etorriz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorriz egingo da.

aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**2) Legegunean publizitatea egitea.**

Legegunean argitaratuko dira egiten den arau-proiektua eta interesgarritzat jotzen diren garrantzi juridikoko txosten eta dokumentu guztiak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

**2) Publicidad en Legegunea.**

Se dará publicidad en el espacio Legegunea del proyecto de norma que se elabore y de cuantos informes y documentación de relevancia jurídica se consideren de interés, para dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la Información pública y buen gobierno.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean. / En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

NEREA MELGOSA VEGA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburua /

La Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico